herrera

Mozkor Frentekideen txapelketa amaitu da

Amaitu da auzoko Mozkor Frentekideok taldeak antolatutako gomazko paleta txapelketa.

Larunbatero, Herrerako frontoiak pilota jokatzeko gogoz zeuden bikote hainbat hartu ditu. Txapelketa aurrera joan ahala gero eta jende gehiago hurbildu da bertara.

Pasa den astuburuan, hau da, hilaren 11ean, erabaki zen txapelketa eta orduan jakin genituen irabazleen izenak. Lehenengo mailan Peke-Dali bikotea izan zen garaile, Katxini eta Cepasi 30-16 irabazi eta gero. Benetan eman zuena baino jakinmin handiagoa piztua zuen partiduak, izan ere, Katxinik eta Cepasek hirugarren sailkatuari justu justu irabazi baitzioten (30-29).

Bigarren mailan berriz, Carlos-Tejas bikote gaztea suertatu zen garaile Prost-Txulo Perueneren kontra jokatutako partiduan.

Partiduak bukatu ondoren, trofeo eta dominak banatu zituzten antolatzaileek irabazle eta txapelketa honetan parte hartutako guztien artean.

Murala txukunduko dute gazteek

San Luis plazan zegoen eliza bota ondoren, gure auzoko erdigunean euskarri modura pareta izugarria jarri zuen Udalak, N-1 errepideak duen pisua eutsi ahal izateko.
Duela urte batzuk horma honetan mural bat margotu zen. Orain Altzako Gazte Asanbladak eta auzoko gazteek pintura hori, egoera kaxkarrean dagoela eta, txukundu egingo dute.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

altza

Askagintzaren XI jardunaldiak egingo dira maiatzaren 20tik 26ra. Bi gai nagusi aztertuko dira aurtengoan jardunaldi hauetan: bata drogak beste kulturetan eta bestea, legez kanpoko droga trafikoaren kontrako legedia Europan. Askotan drogen arazoa gure ikuspegitik eta gure esparruan aztertzen da soilik, hau da, beste herri batzuetan sustantzi hauekiko dituzten harremanak bigarren maila batean utziz. Hori dela eta, aurtengoan Askagintzak kanpoko egoera aztertu nahi du, hemengoa ere hobeto ulertzeko. Bestalde, jakinik ostiralean, hilak 24, kode penal berria indarrean sartuko dela, legez kanpoko droga trafikoa aztertuko da.

Ekintza guztiak Casares Kultur Etxean izango dira arratsaldeko 19.30etatik aurrera.

●

Lau Haizeta Parkea ezagutzeko bigarren ibilaldia laister egingo da igandean, maiatzaren 26an. Irteera goizeko 10.00etan izango da Larratxoko Josu Artetxe plazatik.

Tximistegieta mendi taldeak igande honetarako, hilak 26, Aralarko Guardetxetik irten eta Igaratzan barrena Larraitzera joango den ibilaldia prestatu du. Irteera goizeko 8.30etan izango da Casares Kultur etxetik.

●

Kale antzerkia izango dugu asteburu honetan auzoan. Txinako Yang Feng Puppet Theatre taldeak «Escenas de la ópera de Pekin» lana aurkeztuko du, igandean, hilak 26, eguerdiko 12.30etatik aurrera San Martzial plazan.

MAXI ALTZARIAK
Azkuene 4, Tfnoa.: 39 98 37 - Trintxerpe
Egia 13, Tfnoa.: 27 55 92 - Donostia

TABERNA HONTZA
• Pintxo hotz eta beroak
• Bokatak eta kaxuelak
• Berezitasuna: ganbak eta kalamarrak
Baratzategi 28 • INTXAURRONDO • Tfnoa.: 32 16 40